

Etxebizitzak eta dekorazioa

2024



GUKA



ESPERIENTZIA, KALITATEA ETA BERMEA



@erniosukaldeak

Harzubia hiribidea, 51 - AZPEITIA

943-81 57 05 - 943-15 00 63

4-5

PEACH FUZZ KOLOREA

8-10

LIBURUTEGIA ETXEAN

14-18

2024KO LAU JOERA

PUBLIRREPORTAJEA**20-21**

MERAKI

22

SASKIAK

24-28

ORDENA ETXEAN

30-34

ARGI GUTXIKO LANDAREAK

36-40

GREIGE

44-52

JAPANDIA

54-58

FENG SHUI

60-64

2024KO BAINUETAKO AZULEJOAK

66-70

ARGI NATURALA

74-78

ETXEKO SARRERA

80-82

ZURA HORMETAN

Argitaratzailea:

Urolako Komunikazio Taldea

Helbidea:

Soreasu 1

AZPEITIA

943-81 38 41

943-89 00 17

urolakosta@ukt.eus



GUKA
ZERBITZUAK



PEACH FUZZ,
2024KO
KOLOREA

PANTONE®

13-1023

Peach Fuzz

Urte berriarekin batera, Pantone etxeak kolore berria ezarri dio 2024ari: Peach Fuzz edo melokotoi kolore suabea. Kolore berezia izanik, zaila izan daiteke etxeko dekorazioan erabiltzea, baina, jarraian, lagungarri izan dakizkizuken bost ideia:

1.- Konbinazioa.

Konbinatzeko zaila dirudien arren, tonu askorekin ego ki datorren kolorea da: berdeak, urdinak, beixak... Kolore bereko intentsitate desberdinekin ere konbina daiteke gela batean.

Hala ere, egokiena zuriarekin eta grisarekin konbinatzea izango litzateke. Beraz, tonu horietako hormak badituzu, kolore aproposa izan daiteke etxeko dekorazioa eguneratzeko eta ukitu erromantikoa eta erlaxatua emateko. Gainera, emaitza bikaina lor dezakezu zurezko zoruak eta altzariak dituzten etxeetan erabiliz gero.

2.- Ehunezko osagarriak.

Peach Fuzz kolorea etxean sartzeko modurik errazena eta merkeenetako bat, ehunezko osagarrien bidez da. Kuxin batzuek, ohe zorro eskandinaviar berri batek, alfonbra batek edo gortina batzuek kolore horren bidez lor daitekeen ukitu goxoa eta erlaxatua emango diote etxeari. Ausarta bazara, eta sofa aldatu behar baduzu, kolore horretako bat aukeratzea pauso ikaragarria izan daiteke. Gainera, ehun hori belusezkoa edo ilezkoa bada, emaitza are hobea izango da.

3.- Objektuak.

Koadroak, kandelak, loreak, baxera... Objektu horiek gure etxeari nahi dugun ukitu leun eta delikatua emango diote.

4.- Berritu hormak.

Paretetako pintura berritzea pentsatzen ari bazara, aurtengo Pantone kolorea aukera ona izan daiteke: argia eta berotasuna emango diote etxeari. Horma bakarra margotu dezakezu, espazio bereko horma guztiak margotu ditzakezu edota gela berean Peach Fuzzen bi intentsitate desberdin erabili. Paper margotu bat ere aukeratu dezakezu; lisoa edo estanpatua, zure erabakia izango da hori.

5.- Sukaldea eta bainugela.

Sukaldea eta bainugela berritzea pentsatzen ari diren ausarrentzat, badaude espazio horietan 2024 Pantone kolorea aplikatzeko ideiak, obra handirik egin gabe, gainera:

Azulejuak. Altzariak mantendu nahi badituzu alikatatu berriarekin, paperarekin edo pinturarekin, aire berritua eman diezaiokezu bainugelari edo sukaldeari.

Altzariak. Osorik alda ditzakezu, ateak bakarrik edota binilo bat jar dezakezu. Horietako edozer aukeratuta, argi asko irabaziko du espazioak.

Tresneria. Bainugelarekin eta sukaldearekin pozik bazaude, ukitu bat eman diezaikezu kolore horretako baxerarekin edo tresneriarekin. ■



**Gure produktuekin
atseden perfektuaren luxuan murgildu zaitez!**

**Hartu zure hitzordua
arreta pertsonalizatua jasotzeko.**

Landeta hiribidea, 6 • AZPEITIA • 943-15 18 44 • 680 56 31 88

www.bijotaaltzariak.com



BIJOTA

Altzariak eta atsedena



LIBURUTEGIA ETXEAN

Irakurtzea gustuko duzu eta urteetan joanean liburu asko eta asko erosi dituzu. Bat-batean liburu pila bat dituzula ohartu zara, eta ez dakizu oso ondo non jarri etxeko bazterrak nahastu gabe. Apalategi bat behar duzula erabaki duzu.

Horma apal egokia aukeratzeak errotik eralda dezake edozein gelaren itxura eta estiloa. Zure liburu gogokoenak esku-izatea, eroso izateaz gain, etxeko espazioak apaintzeko modu bat ere izan daiteke.

Estetika eta funtzionaltasuna konbinatzeko, apalategi bat erosi aurretik, hainbat gauza hartu behar dira kontuan:

Hasteko, neurriak aztertu behar dira. Funtsezkoa da arreta handiz neurtzea liburutegia kokatzeko pareta, apalategia

handiegia edota txikiegia ez dela ziurtatzeko. Materialen aukeraketa beste alderdi erabakigarri bat da; adibidez, zura, metala edota plastikoa dekorazio estilo ezberdinetara egokitzen dira. Zura aukerarik tradizionalena da, eta testuinguru klasikoetara zein garaikideetara ondo egokitzen da. Metala, ordea, erresistenteagoa da, eta oso ondo egokitzen da industria arloko diseinuekin.

Argia da beste faktore bat. Ondo argizatutako apalategi batek, hango liburuak nabarmentzeaz gain, berotasun ukitu bat eranstean dio gela osoari. Apalak LED argiekin edo zintzi-



Diseinu eksklusiboak,
kalitatezkoak eta atentzio
pertsonalizatua gure
bezeroen beharrentzat.

KIBUC Azpeitia

gureametsa@kibuc.com

Landeta Hiribidea, 1, Azpeitia

Tel. 943-15 16 81

www.kibuc.com

[kibuc_gureametsa_azpeitia](#)





likarioekin argiztatzeko aukera ere azter dezakezu. Azkenik, ez ahaztu muntatzeko erraztasuna duen edo ez, horrela, ez duzu arazorik izango profesional baten laguntzarik gabe apalategia zerorrek muntatzeko.

Hormako liburutegi bat jartzeko gelarik onenak

Hormako liburutegi bat jartzeko lekurik egokiena identifikatzeak, estetikari ez ezik, altzariaren funtzionaltasunari ere eragiten dio. Kontuan hartu beharreko puntu bat argiztapen naturala da; izan ere, liburutegia argi iturri natural batetik gertu jartzeak agerian dauden objektuen koloreak eta forma nabarmendu ditzake.

Apalategi baterako lekurik egokienetako bat, zalantzarik gabe, egongela da. Bestalde, logelek ere apalategi bat har dezakete, batez ere bertan ikasteko edota lan egiteko idazmahai bat jartzea aurreikusten baduzu.

Zergatik jarri liburutegi bat zintzilik?

Irtenbide berritzaileago baten bila bazabiltza, aukeratu zintzilikatze apalategi bat. Kasu horretan, funtzionaltasuna eta diseinua elkarrekin doaz, liburutegi mota hori espazioa optimizatzeko aukera ona baita, etxebizitza txikietan batez ere: paretak ahalik eta gehien aprobetxatzen ditu, zorua libre uzten du eta garbiketa errazten du.

Uste eta iritzi askoren kontra, liburutegia paretean ezartzeak egonkortasun bikaina eskaintzen du, eta altuera pertsonalizatzeko aukerak familiako kide guztientzat irisgarri egiten du. Gainera, argiztapen sistema egokiarekin, ikusgai dauden liburuak eta objektuak nabarmenduko dituzu.

Nola jarri liburuak apalategi batean?

Apalategi egokia aukeratu eta ezarri ondoren, liburuak nola jarri pentsatu egin behar da. Liburuak ondo pentsatutako jarri badituzu, bilatzen duzuna erraz aurkituko duzu, eta horretaz gain, apalategi hori zure etxeko elementu bereizgarri ere bihur daiteke. Itxura ordenatu eta koherentea izan dezan, liburuak tamainaren edo kolorearen arabera multzoka ditzakezu. Horrek bilaketa errazteaz gain, inpaktu bisual atsegina ere sortzen du. Batzuek nahiago dute liburuak generoaren edo egilearen arabera antolatu, eta apalategia erreferentzia puntu intuitibo bihurtu.

Beste joera interesgarri bat, nahiz eta agian ez den oso praktikoa, liburuak alderantziz jartzea da, hau da, orriak erakutsiz. Estetika kontu hutsa da, liburuetako orrialdeak horitzen ari direla ikusten baita. ■



ALBIZU PINTURAK ETA ETXE APAINKETAK



Pinturetan aukera zabala: hormak, altzariak, eta abar... margotzeko. Egurrentzako tratamenduak, argizariak eta abar...



Servicolor makinarekin berehala lortuko dizugu nahi duzun kolorea.



Arte Eder eta eskulanetarako gaiak: kaballeteak, lientzoak, oleoak, akrilikoak, pintzelak...



Oleoz eta akuarelaz eginiko margolanak, laminak.
Era guztietako enmarkätze lanak.



Paper pintatuak eta muralak: botanikoak, geometrikoak, lisoak, texturadunak... ikusi azken kolekzioak.



Oihaletan aukera zabala: leihoak janzteko (estoreak, biribilgarriak,...), ohe estalkiak, kojina edota tapizatu lanak egiteko (besaulkiak, oheburukoak...)







Alfonbrak eta moketak era guztietako diseinu eta neurrietan, egur laminatuak eta binilozkoak lurra janzteko.



Altzari osagarriak (besaulkiak, komodak, mahaiak...) proiektu eta erreforma lanak.

EZ DUGU ALTZARIRIK SALTZEN!



- ▶  Intimitatea eta maitasun txokoak sortzen ditugu
- ▶  Lagunartea eta harremanak sustatzen dakigu
- ▶  Atsedena errazten dugu
- ▶  Erantzunak eta konponbideak eskaintzen dizkizugu

**Zure etxebizitza
elkarrekin eraikiko dugu**

Zure IDEE-iei FORM-a emango diegu

IDEE FORM

Juan XXIII, 16 - AZPEITIA
943-00 53 94 • 627 65 14 59
@ ideeform_



IDEALFORM

2024KO LAU JOERA DEKORAZIOAN

Material naturalak, testuren nahasketa eta koloreen jaialdia dira urte honetan zehar dekorazioak izango dituen oinarri nagusietako batzuk. Hona hemen 2024an ikusiko dugunaren aurrerapena.

Etixerako instalakuntzak

Argiteria

Bainuak

Sukaldeak

Lokalak

Izarraitz auzoa, 66 ● AZPEITIA
606 30 63 68 ● axkiola@gmail.com





Oikia auzoa, z/g - 43. pab · ZUMAIA

www.desin-lan.com · desin-lan@hotmail.com

615 75 75 09 · 943-14 33 07

Elementu naturalak eta eskuz egindakok boladan direla iritsi da 2024. urtea; horiek dira aurtan interiorismoan aurkituko ditugun bi elementu nagusiak. Azken urteetan ikusitakoaren bidetik datoz joera horiek, ez dira ezer berria, baina badituzte ñabardura berritzaileak, besteak beste, kolorearen erabileran eta testuren konbinazioan.


Hona hemen aurtan dekorazioan nagusituko diren lau joerak:

Material naturalak, protagonista nagusiak

Material naturalek aspaldi konkistatu dituzte gure etxeak estilo erabat modernizatuan, eta iraunkortasun eta jasangarritasun printzipioak pil-pilean dauden honetan, material ardurasuen ingururuko interesa gero eta handiagoa da herritarren artean. Izan ere, estetika eta edertasuna, gero eta gehiago, erabiltzen diren materialek, fabrikazio prozesuak eta tokiak ere definitzen dituzte. Material naturalekin zerikusia duen joerarik argienetako bat ehundura handien itzulera da; adibidez, marmolarena eta zurarena.

Eskuz egindakoak

Fokua diseinu zintzoan jartzen den aro berri honetan, eskuz egindako objektuek leku pribilegiatua dute. Iraganeko teknikak eta tokian tokiko estiloak berreskuratzeak, hala nola zeramikagintzak eta ehungintzak, indar handia hartu dute. Modaz pasatu ezin den joera da. Baina artisautzaren mundua eta eskuz egindakoa oso zabala denez, beste ehundura batzuk, beste kolore batzuk, beste forma batzuk... dira inspirazio iturri berriak. Hala, minimalismotik eta Mediterraneoko esentziatik apur bat aldendu egin da joera, irudikapen landuagoak bilatuz.





KONFIANTZA, EROSOTASUNA ETA DISEINUA

Ainguru Kalea, 5
20720 AZKOITIA

943-54 08 86

669 41 40 25 @ f



AZKOITIAN EGINDAKO LAN BAT



Koloreari beldurrik gabe

Kolorea funtsezko elementu bihurtzen joan da interiorismoaren munduan. Barrualdeak dinamikoagoak eta pertsonalagoak bihurtu dira, eta, batez ere, estandarizatutakotik urruntzen dira. Hala, 2024. urteak koloreari beldurra izatea galtzeko deia egiten du. Adibidez, tonu beixen barruan, proposamen beroagoak nabarmentzen ari dira, eta horren adibide da urteko kolorea: Peach Fuzz-a. Horrela, zuria desitxuratu egiten da, koloreari lekua utziz.

Patroiak eta testurak nahastea

Testuren arloan metal naturalak edo kromatuak indarrez itzuli dira, baina ez urre kolorekoak. Aluminioa eta altzairu herdoilgaitza dira protagonistak. Horrekin batera, testuren, koloreen eta materialen joko dinamiko horiek bultzatuko dituen beste joera ispiluak dira; konbinazio oso interesgarriak sor ditzakete. ■



Bizkaia kalea 43 · ZARAUTZ
943 83 14 00
www.electricidaderne.com
comercial@electricidaderne.com

- Pabiloi berriak.
- Enpresetako instalazio berriak eta mantentze lanak.
- Ofizinak.
- Telekomunikazioak.
- Atezain - Bideoatezain automatiko berriak eta mantentze lanak.
- Etxebizitza berriak, erreformak eta mantentze lanak.
- Komunitateetan instalazio eta mantentze lanak.
- Argizteri publikoa eta eguzki farolak.
- Led argiak eta erregulazioak (Push, Dali, 0-10v)
- Panel Fotovoltaikoak eta Auto Kargatze azpiegiturak.
- Proiektuak eta Boletinak.
- Ofizina teknikoa eta aholkularitza bertan.



LEHEN



ORAIN





M
MERAKI
estudioa

MERAKI ESTUDIOA:
MAITASUNA, SORMENA ETA ARIMA

**Azpeitiko Balentina Agirre plazan kokatu dute
Mirari Aranburuk eta Maria Estebanek Meraki Estudioa.
Bezera ezagutu, eta haren beharretara,
nahietara eta gustuetara
zuzendutako diseinuak lantzen ditu bikoteak.**



Zerbait egin maitasunez eta sormenez, zure arima horretan jarriz. Hori da, hain zuzen ere, Meraki hitzaren esanahia greko modernoan. Izan ere, horrela, maitasunez egiten duzun guztian zure aztarna utziko duzu.

Beraiantzat hartu dute hitza eta esanahia Mirari Aranburu eta Maria Esteban diseinatzaileek, eta Meraki Estudioa sortu dute; Azpeitiko Balentina Agirre plazan kokatu dute bulegoa.

Barne Diseinua ikasi ondoren, nahiz eta bakoitzak bere aldetik abiatu beraien lan ibilbidea, duela urte batzuk elkarlanean hasi ziren. Orain arte etxetik egiten zuten lan, baina espazio propio baten gogoz ziren. Hala, Balentina Agirre plazako lokala hartu eta martxan

jartzea erabaki zuten. Irailtik daude bertan, horrela nahi duten bezeroen eta herritarren beharrei erantzunak eta irtenbideak ematen.

Biek ala biek 25na urteko lan esperientzia dute barne diseinuaren arloan. "Urte horietan guztietan zerbait ikasi badugu, bezeroa ezagutzea funtsezkoa dela da. Bezeroak dituen gustuetara, nahietara eta beharretara iritsi behar gara, eta horien arabera egin gure lana. Izan ere, ez dago zure lana amaitu eta bezeroa gustura gelditu dela ikustea baino poztasun eta harrotasun handiagorik", azaldu dute.

Egin beharrekoa maitasunez, sormenez eta arimaz egindakoan gertatzen da hori.



Ildefonso Gurrutxaga, 12 Behea
 AZPEITIA
 943-09 77 53
 info@merakiestudioa.com

SASKIEN UKITUA

Ukitu berezia eman nahi badiozu etxeari edo txoko bati, saskia izan daiteke irtenbidea.

Zumezkoak, oihalezkoak, banbuzkoak, handiak, txikiak, kolore bakarrekoak, bi koloretakoak... Gaur egun, saski aukera zabala dago merkatua, eta diru gutxi-rekin, ukitu berezia eman diezaiokezu etxeko dekorazioari. Material naturalez eginda egon ohi direlako, ukitu atsegina eta goxoa ematen dute saskiek.

Ukitu bereziaz gain, etxeko edozein txokotan edo gelatan erabil ditzakezu. Apaingarri hutsa baino askoz ere gehiago dira; funtzionaltasun handiko osagarriak dira saskiak, oso praktikoa. Sarreran, adibidez, gauzak gordetzeko

erabili dezakezu, edota landareentzako elementu baliagarria ere bada. Egon-gelan goxotasuna eskainiko du, eta sofako mantak gordetzeko oso praktikoa da. Haurrak izanez gero, jostailuak gordetzeko elementu ezin hobea da.

Bainugelana, aldiz, biltegitratze sistema egokia da, ikusi nahi ez diren produktuak edo elementuak ezkutatzeko: eskuoihalak edo komuneko papera,

adibidez. Azkenik, sukaldean ere erabili dezakezu saski bat. Armairu barruan zein kanpoan, patatak, tipulak edo baraxuria gorde ditzakezu. Are ukitu bereziago eman nahi izanez gero, paretan zintzilikatzeko saskiak ere badaude. ■





PEFC

PEFC/14-38-00151

Modu zirkularrean Sentitzea, Sortzea, Jardutea




ES EU / 049 / 00001

NATURA DA GURE JARDUERAREN ETA GURE INSPIRAZIO - ITURRIAREN JATORRIA.
HORREGATIK ERRESPETATZEN DUGU FABRIKAZIO- PROZESU OSOAN.



ASTIGARRAGA

Ezagutu gaitzazu eta
ikusi gure altzariak



bit line

www.astideco.com

A modern living room with a light blue sofa, wooden coffee table, and framed art. The room is decorated with a white patterned blanket, several pillows, and a large potted plant. The floor is covered with a light-colored rug. The text "ETXEA GARBI ETA TXUKUN MANTENTZEKO SEI PAUSO" is overlaid on the image.

ETXEA GARBI ETA TXUKUN MANTENTZEKO SEI PAUSO



INAKI
sukaldeak cocinas

SUKALDEAK

Hegoalde 8 (Eroski zentroari)
943-83 52 57
ZARAUTZ

ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

San Frantzisko 3
943-83 49 60
ZARAUTZ

www.inakisukaldeak.com
cocinas@inakisukaldeak.com



TiEN21



Lana dela, kirola dela, aisialdiko bestelako jarduerak direla... Ziurrenik etxean ez duzu denbora asko igarotzen. Eta etxean igarotzen duzun denbora apur hori ez duzu garbiketan eta txukunketan erabiltzeko gogorik. Baina aitzakia besterik ez da hori, pauso gutxi batzuekin, etxea garbi eta txukun izan baitezakezu, eta egunerokotasunean txertatuz gero, bizitza erraztuko dizute. Hona hemen gako batzuk:

1.- Ordena eta garbitasuna ez daude espazioaren mende

Etxe handiago batean bizitzeak gauzak konponduko lituzkeela pentsatu ohi den arren, erantzuna ezezkoa da; etxe bateko harmonia gauza kopuruaren araberakoa izaten da. Objektu gehiegi edukitzeak, betetasun sentsazioa sortzeaz gain, denbora gehiago kenduko dizu etxea garbitzen.

2.- Erosketa zentzudunak egin

Etxea garbi eta ordenatuta edukitzea etxean daukagunari eta erosi nahi dugunari buruzko oinarrizko galdera batekin has ten da: "Behar al dut?". Espazio harmonikoagoak eduki ahal izateko, erosketa zerranda bat egin behar duzu, izan janaria, arropa edota altzariak. Planifikatzeak zure etxea hobeto ezagutzeko aukera emango dizu, eta kalitatea kantitatearen gainetik lehenesten lagunduko dizu. Zerranda egin, beraz, zentzuz erosteko. Gainera, plangintza txar batek pilaketa ekar dezake.

3.- Eskaini une bat txukuntzeari

Hamar minutu nahikoak dituzu. Garbitu maleta edo poltsa bidaia baten ondoren: horrek behar duzuna bakarrik izaten lagunduko dizu, eta ez dituzu tiketak edota paperak pilatuko. Minutu horiek ere eman ditzakezu jaso ez dituzun arropa zikina ondo jartzen edo poltsak eskegitzen. Etxea garbi eta ordenatua izateko beste aholku bat arlokako edo gelakako txukunketa sakonagoak egitea da, erregulartasunez. Sukaldean, hondatuta dauden platerak, edalontziak eta tresnak atera; armaruan, jada erabiltzen ez duzun arropa kendu edota eman; eta bulegoan, erabilgarri ez diren dokumentuak, aldizkariak edo txartelak kendu.



ZARAUZ, 31. bidea eta garaioak



AZKOITIA, bitamiera



urbitarTE

Igeltzaritza lanak • Erreforma integralak • Fatxadak • Teillatuak



AZPEITIA, San Agustin (baseliza)



ZARAUZ, erreforma integrala





4.- Atundu modu funtzionalean

Horrek izan behar du etxean denbora gutxi igaro eta garbi eta txukun mantendu nahi dutenen mantra. Etxeko desordena saihesteko, funtsezkoa da maiz erabiltzen dugunari lehen-tasuna emanetea eta daukaguna ikusteko nahikoa leku utziz antolatzea. Izan ere, gauzak ikusten ez dituzunean, ahaztu egiten zaizu badituzula. Gauza bera gertatzen da hozkailua bezalako lekuetan: antolaketa funtzional batek egoera txarrean dauden elikagaiak pilatzea ekiditen lagunduko dizu (eta ondoren egin beharko duzun garbiketa sakona), edota kablez betetako kaxoi horretarako ere balio dizu, gailuekin bateragarriak ez diren kableak botatzeko.

5.- Erabiltzen dut, gordetzen dut

Etxe ordenatua izatea ohitura bat da. Eta etxea kaos bihur dezakeen akatsik ohikoenetakoa da erabiltzen duguna berehala gordetzeko edo garbitzeko ohiturarik ez izatea. Hau da, negozio bidaia baten biharamunean maleta hori desgiteak edo tindategitik ekarri berri dituzun jantziak zintzilikatzeak, txukuntzeko ohitura hartzeaz gain, denbora aurrezteak ekarriko dizute etorkizunean. Era berean, etxera iristean gorde berehala zapatilak beren lekuan, horrela ez zaizu pilaketarik egingo eta.

6.- Garbiketarako programa zehaztu

Zure jardueren eta etxearen beharrei erantzungo dien garbiketa errutina bat sortzea funtsezkoa da eta, gainera, gauzak erraztuko dizkizu. Errutina horretan, egunero erabiltzen diren espazioak eta bigarren mailakoak izan daitezkeenak zehaztu beharko dituzu, hala nola harrera lekua edo estudioa. Bainugela eta logela egunero garbitu behar dira, eta, aldiz, gutxi erabiltzen direnak nahikoa da astean behin garbituta, hala nola, estudioa edota sarrera. Minutu batzuk hartu eta saia zaitetz idatziz adierazten, errazago kudeatuko duzu guztia eta. ■



Txindoki

www.txindoki.com

ARGI GUTXI BEHAR DUTEN LANDAREAK

Etxe txikia eta iluna duzu?

Ez da aitzakia barruko landareei uko egiteko.

Argi asko behar ez duten espezieak aukeratu besterik ez duzu egin behar.

Etxean barruko landareak edukitzeak abantaila ugari dakarkio gure bizitzari. Edozein espazio apaintzeko gai izateaz gain, gure etxeei naturaltasuna eta freskotasuna ematen diete. Kasu askotan, gainera, landareek arnasten dugun airea garbitzen laguntzen dute, potosak, adibidez.

Ez du axola lorezaintzan aditua ez bazara edo argi natural handirik ez duen etxe txiki batean bizi bazara. Ez uko egin etxean landareak edukitzeari. Tamaina ertaineko eta hazkuntza moteleko espezieak baino ez dituzu aukeratu behar, eta, gainera, badaude argi gutxiko inguruneetan egotea nahiago dutenak. Hemen dituzu adibide perfektuak, ederrak eta zaintzen errazak.





Joan XXIII, 7

20.730 Azpeitia

943 06 33 57

comercial@xua-k.com

X U A
Komponents

www.xuakomponents.com



Altzarietarako eta Barne Diseinurako

OSAGIAIAK



Altzarietarako eta Barne Diseinurako ideiak proiektu pertsonalizatuetan gauzatu ahal izateko soluzio aukera zabala eskeintzen dugu.

Behar bakoitzerako osagai bereizgarri eta erakargarriak.



POTOSA

Hutsik egiten ez duen klasi-koa da potosa. Argi natural gutxiko espazioetan landatzeko barruko landareen artean, edertasunagatik, zaintzeko erraztasunagatik eta hazteko ia argitasunik behar ez duelako nabarmentzen da. Horregatik da espezie ohikoena etxeetan. Espazio txiki eta ilunetan jar dezakezu; izan ere, eguzkiaren izpiak ez ditu zuzenean jaso beharrik. Zaintzeko orduan, ez du arreta handirik behar: saia zaitez gehiegi ez ureztatzen (astean behin egizu, lurra lehor dagoenean) eta bikain haziko da.

**SANSEVERIA**

Egongelarako ukitu naturala duen eta gainera dotorea den dekorazio landare baten bila zabiltzala? Sanseveria da aukera onenetako bat. Ezpata formako hosto luze, lauei eta puntazorrotzei esker, originala eta desberdina da. Kolore berde iluna du, eta ñabardura zurixkak edo horiak ditu. Gainera, ezin hobea da etxe txikietan eta argi natural gutxiko guneetan landatzeko. Ez duzu asko kezkatu beharrik izango zaintzaz; nahikoa izango duzu neurritz ureztatzea eta putzurik sor ez dadin zaintzea.

**IRATZEA**

Garoa eremu heze eta ilunetan hazten da naturan, eta etxeen barnealdean ere nahiago izaten ditu bazter ilunak, zuzeneko eguzkitik salbu. Bere hostoek, kolore berde bizikoek, naturaltasuna eta ukitu basati interesgarria eskaintzen dute. Etxeko edozein gunetan jar dezakezu, bainugelaren barne, eta sa-soi betean haziko da. Garoak inguruneke hezetasuna behar duenez, ez jarri erradiadore baten edo beste edozein bero iturriren ondoan. Egunero ureztatu, baina saiatu ez pasatzen ur kantitatearekin.

SOLEIROLIA

Soleirolia tamaina txikiko landare sinplea da, baina ezin hobea da edozein txokotan jartzeko. Hostoak oso txikiak ditu, kolore berde distiratsukoak. Ingurune ilunetan hazten da eta barnealdeetan nahiago ditu argi gutxiko txokoak, zeharkako argia dutenak. Erraza da zaintzeko. Ureztatu baino ez duzu egin beharko; hori bai, sustraietatik bidez. Jarri loreontzia urez betetako plater baten gainean, eta utzi landareari behar duen ur kantitatea xurgatzen.



artilan
alfonbrak

Neurrira egindako alfonbrak
Binilozko alfonbrak
Alfonbra tradizionalak

San Frantzisko, 8 • ZARAUTZ
943-13 10 59
www.artilanalfonbrak.com





KROTOIA

Krotoia loratzen ez den landarea da, horren beharrik ere ez du. Hosto eder eta koloretsuak ditu, berdeak, horiak, arrosak edota laranja, eta nerbio markatuak. Etxean landatu nahi baduzu, saia zaitetz eguzki izpiak zuzenean ez diezaioten ematen, kalte handia egin baitiezaiokete. Krotoiak nahiago ditu argi gutxiko bazterrak, zeharkako argiarekin. Ureztatu ezazu erregularitasunez, eta giro hezeak gustatzen zaizkionez, maiz lainoztatu aren hostoak.

KALATEA

Tamaina ertaineko landarea da, itxura dotorea du, eta kolore, nerbio eta abarren ñabardurak dituzten orri eder eta originalak ditu. Argitasun gutxiko etxea baduzu, kalatea da zuretzako landare ideala, txoko ilunetan ere osasuntsu haziko delako. Ur asko behar du, baina saiatu putzurik ez egiten eta hostoak ez bustitzen.



AECMEA

Edertasun exotikoa duen landare berezia da Aecmea; izan ere, ñabardura zuriak eta berdeak dituzten orri originalak ditu. Gainera, loratzean braktea zentral bat geratzen zaio agerian, arrosa kolorekoa, eta asteak irauten ditu horrela. Ondo zaintzeko, leku egokia bilatu behar zaio: leihoetatik urrun, eguzki izpiek zuzenean eman ez diezaioten. Aecmea arazorik gabe hazten da bazter ez oso argitsuetan. ■





LARRAMENDI **Tien21**

Julio Urkixo etorbidea13, AZKOITIA | 943-85 19 61
info@larramendijauregui.com | www.larramendijauregui.com

KOLORE NEUTRO BERRIAREN SORRERA

Grisaren soiltasunak eta beixaren berotasunak bat egiten dute gero eta gehiago ikusten ari garen tonu bat eratzeko. 2024an leku ugaritan ikusiko duzun neutroa da greige kolorea. Etxean nola erabili asmatzeko gakoak ditugu zuretzat.





3000 m²-ko erakusketa, etxe guztia janzteko era guztietako altzari eta osagarriak, 40 urte baino gehiagoko profesionaltasuna, arreta pertsonalizatua eta beti

**KALITATEA PREZIORIK
ONENEAN**

eta deskontu izugarriak erakusketa aldaketagatik



Itziar gaina z.g. • Itziar • Deba

943-19 91 00 • endaneta@mueblesendaneta.com • www.mueblesendaneta.com



Zuria gehiegi erabili da urteetan, bazirudien ez zegoela beste kolorerik, eta neke horri irtenbidea emateko sortu zuten greige kolorea. Grisaren eta beixaren batura da greige tonua. Poliki-poliki bere lekua hartzen joan da dekorazioaren arloan, eta badirudi inoiz baino gahiago nabarmenduko dela 2024an.

Norvegia, Suedia eta Finlandia dira greige gehien erabiltzen duten herrialdeetako batzuk, eta ez da harritzekoa, kolore hori ezin hobeto ezkontzen baita barnealde nordikoen soiltasun beroarekin; eta urteko joerek agintzen duten moduan, lasaitasuna ematen du ingurune neutro bati saturazio gehigarria emanez.



Amenabar

MOTA GUZTIETAKO GORTINAK, OHERAKO KOLTXAK,
ALFONBRAK ETA OSAGARRIAK



Elizkale, 32 • AZPEITIA 20730 • 943-15 06 97 / 685 11 07 03
www.amenabardecoracion.com / info@amenabardecoracion.com



Nola erabili?

Beste kolore batzuk ez bezala, tonu neutroak eta beroak ateporalak dira eta, beraz, beldurrik gabe erabil daitezke. Gainera, lasaitasuna transmititzen dute eta oso moldaerazak dira beste kolore eta material batzuekin konbinatzeko orduan, kontrasteak sor baititzakete.

Oinarri gisa erabil daitezke hormetan, eta baita ehunetan ere, hala nola errezeletan, maindireetan edota alfonbretan. Ausartzen bazara, altzarietan ere erabil dezakezu, beti ere beste kolore batzuekin kontrastatea eginez edo hainbat tonalitate nahastuz, espazioa ez dadin laua geratu.

Hona hemen greigearekin konbinatzen dituzten lau koloreak:

- Zuria. Zuri distiratsu bat gris ilun batekin ondo doa. Barnealde monokromatiko batean bereziki, zuriak atentzioa ematen du eta kontraste interesgarriak sortzen ditu. Konbinazio horretan ez da beste kolorerik behar, gris tonu desberdinak aukeratu behar dira.
- Hori mostaza. Hori mota horrek kontraste bizia egiten du gris soilarekin. Oinarrian kolore grisaxka eta elementu hori batzuk dituela, gelak aldarte alai eta lasaia transmititzen du.
- Urdin grisaxka. Grisaren eta urdin-grisaren konbinazio pixka bat diskretuagoa da. Bi koloreek gris ñabardurak dituztenez, emaitza giro lasaia da, informala eta arina.
- Arrosa. Grisak oso ondo joaten dira pastel tonuekin ere, hala nola arrosarekin edo abrikotarekin. Koloreen arteko erlazioa harmoniatsua izan dadin, batez ere tonu beroak aukeratu behar dira. Horiek modu ezin hobean datoz bat grisarekin. ■

OBRA ZUZENDARITZA ETA GREMIOEN KOORDINAZIOA
 IREKIERA ETA JARDUERA BAIMENAK
 ETXESARRERAKO IRISGARRITASUNA HOBETZEKO TXOSTENAK
 SEGURTASUN ETA OSASUNEKO OINARRIEN AZTERKETA (EBSS)
 ERAIKINEN IKUSKATZE TEKNIKOA (ITE)

 **JON
ESNAOLA**
 ARKITEKTO TEKNIKOA

Azpeltia, Gipuzkoa
 M. 647 65 45 06
 T. 943-15 70 00
 E. info@jonesnaola.eus
www.jonesnaola.eus



Sagasti

LEIHOAK



ZERBITZUAK

- Era guztietako leihoen eta itxituren instalazioa: PVC, aluminioa, RPT
- Aluminiozko armairuak • Baranda • Eltxo-sareak • Pertsianak • Konponketak

Eusko Gudaria, 7 - 20810, ORIO - 943-13 00 77 - sagasti@sagastileihoak.com




URRATEGI

INTERIORISMO

barne diseinua

dica.





ERREFORMA INTEGRALAK
AZPEITIA | EIBAR



JAPANDI ESTILOA: JAPONIAR ETA ESKANDINAVIAR ESTETIKEN BATURA

Japandi estiloa azken urteetan barne diseinuaren munduan sortu den estilo berri eta ezagunenetako bat da. Japoniar eta eskandinaviar estetiken batura da Japandia, eta etxeetan eta bereziki sukaldeetan nola sartu ezagutuko dugu hurrengo lerroetan.



Artzubia, 6, behea-esk

Azpeitia

943-81 21 67

inmobiliaria@pildain.com



PILDAIN
Inmobiliaria



- ARGIZTAPEN DEKORATIBOA ETA TEKNIKOA
- ETXEBIZITZA ETA PABILOIEN INSTALAZIOA
- TELEKOMUNIKAZIOAK
- AHOLKULARITZA PERTSONALIZATUA

**MERKATUKO MARKA
GARRANTZITSUENAK DITUGU**



GAU-ARGI, SL





Dekorazioan azken urteetan sortu den estilo garrantzitsuenetakoa da Japandi. Bi estetikaren batura da, japoniarrarena eta eskandinaviarrarena, hain zuzen ere. Sentipen lasaien eta abegikorren konbinazio perfektuaren emaitza da; hau da, bi estilo ezagunen bat egitea: Japoniako Zen estiloa eta Eskandinaviako estiloa.

Japandi estiloaren ezaugarriak lehengai organikoak eta iraunkorrak dira. Era berean, ihes egiten du anabasatik –lasaitasuna bultzatu nahi baita–, baita kargatutik eta zaratatik ere. Horregatik guztiagatik, Japandiak argi eta garbi besarkatzen du "gutxiago gehiago da" esaldia, eta nahiago ditu tonu neutroak edota naturari lotutakoak, hala nola, zuriak, marroiak eta berdeak. Landare eta artisau piezen presentzia ere ongiatorria da mugimendu horretan.

Japandi estiloaren ezaugarriak dira garbia, minimalista, beroa eta abegikorra izatea, eta altzari edo apaingarri arinak erabiltzen ditu.

Kolore paleta

Lehenengo aholkua estiloaren arabeko kolore paleta bat definitzea da. Horrek, hormak zein kolorez margotu definitzen ez ezik, altzarien eta osagarrien tonalitateak aukeratzen ere lagunduko dizu, elkarren artean harmonia izan dezaten.

Kolore bero eta neutroak: erabili beixak edo marroiak tonalitate argi edo ez oso ilunetan.

Japandi estiloari ukitu bereziagoa emateko, sartu espazioan kolore nagusi gisa beltza edo grisa duten lanparak, heldulekuak eta txorrotak bezalako osagarriak.



ainhoa etxaniz estudioa
barneen diseinatzailea

proiektuak
dekorazioa
obra zuzendaritza
altzari eta osagarriak



julio urkijo, 6 • AZKOITIA
943-85 09 73 • 669 92 24 58
nho@nhoestudio.com
www.nhoestudio.com



Aldiz, arrosa, urdina edo berdea erabili nahi baduzu, ziurtatu leunak direla, ez oso indartsuak.

Altzariak

Espazioak arin sentipena eman behar du; horregatik, saiatu lerro finak lortzen. Gainera, material eta ehun naturalak erabil ditzakezu; adibidez, zura eta kotoia.

Osagarriak

Egia da Japandi estiloa minimalista dela, baina horrek ez du esan nahi apaingarririk sartu ezin zaionik. Aitzitik, hormetan, mahaietan, erlaintzetan eta gainerako gainazaletan dagoen dekorazioaren helburua izan daiteke zorientasuna sortzea, esaterako, oroitzapen onak sortzen dizkizun zerbait jarrita.

Landareak dira gakoa, haiekin espazioari bizia ematen diotzulako, eta ez direlako espazioa kargatuko duten zerbait, beti ere neurritz erabiltzen badira.

Era berean, egin naturalaren edo artisauaren aldeko apustua; Japandi estiloak asko baliosten ditu eskuz eta modu artisauan egindako elementuak, gizakiak egin dezakeenaren isla direlako.

Materialak

Zorurako, hormetarako, altzarietarako eta osagarrietarako materialak aukeratzea ez da lan zaila Japandi estiloa ezarri nahi denean, naturako elementuetan oinarritzen baita, adibidez:

- Harria
- Zeramika
- Zurak tonalitate argietan
- Lihoa
- Banbua
- Arroz papera

Ez da beharrezkoa horiek guztiak erabiltzea; bi edo hiru material nagusi hauta ditzakezu, eta gainerakoak osagarri gisa erabili.



EITEN
AROSZTEGIA

egur lanak orokorrean



Zubizar kalea 2, Landeta | Azpeltia | 943-15 01 53



Sukaldeak

Japandi estiloa etxera eramateko aholku edo gako nagusiak dira horiek, baina sukaldeetan bakarrik oinarrituz gero, honako pauso hauek jarraitu beharko dituzu:

Akabera naturaleko altzariak

Akatsen edertasuna estimatzen du Japandi estetikaren oinarriak, eta filosofia horren arabera, ezer ez da perfektua, kontrakoa baizik, horregatik natura inspirazio iturri nagusia da dekorazioaren munduan.

Eta, hain zuzen ere, sukaldean, posible da estilo hori altzarietara egokitzea. Nola? Zurezko eta harrizko akaberak auke-

ratuz. Testuren kontrasteak zuntz naturalen erabilerari esker egin daitezke, alfonbrekin edota dekorazioko piezekin. Tradizionalaren eta garaikidearen arteko fusio horrek lasaitasunera gonbidatzen duten espazio atseginak sortzen laguntzen du.

Artisau elementuak

Diseinu funtzionalari berotasuna gehitzeko eta lasaitasun sentazioa nabarmentzeko, artisau elementuek edo osagarriek eskaintzen duten inperfekzioa erabili dezakezu, hala nola, zurezko edo metalezko aulkiak edo argi desberdinak egiten dituzten paperezko lanparak.





azkuelek



DEKORAZIOA
ARGIZTAPENA
OPARIAK



Zigordia kalea, 11

Araba kalea, 41 (Eroski ondoan)

ZARAUTZ

943-13 04 33 | 943-13 33 08

619 52 35 39 | 665 05 25 47

azkuelek@gmail.com |  



Japandi sukalde bat lortzea ahalbidetzen duen beste alderdi bat beirak integratzea da espazioan, Feng Shui-ak ematen duen Japoniako atmosfera perfektua sortzen baitu.

Kolore neutroak beti

Mugimendu minimalista denez, kolore nagusiak neutroak izan behar dira, eta horiek kolore ukitu sotilak izango dituzte. Aukeratutako osagarrien bidez lor daiteke, hala nola, pitxerak edo lur tonuko tresneriak erabilia.

Paleta bat bailitzan hartu behar da, eta eskalan joango da; elementu handienak, hormak eta leihoak, adibidez, zuriz egongo dira eta gainerako elementuak grisaren eta marroia- ren tonalitateetan.

Kolorezko pintzelkadak

Espazioari bizitasun ukitu txikiak emateko, kontrastearekin jo- lastu behar da. Japandiak zeramikazko ontziak, landareak eta kolore xehetasun txikiko lanparak, heldulekuak edo alfonbrak bezalako elementuak erabiltzen ditu horretarako. Elementu eta kolore aukeraketa on batek berotasun ukitu perfektua eman diezairoke sukaldeari.

Dena ordenatuta

Japandi estiloan funtsezkoa da etxeko edozein gunetan espazio eroso, egokitu eta funtzionala sortzea. Estilo honen oinarria espazio garbiak eta minimalistak sortzea da, non ez dagoen zarata bisualik, izan ere, xehetasun txikien bidez, ikusmenerako harmonia mantendu ahal izatea da asmoa. Sukaldeetan, ergonomia eskaintzeko eta espazioa aprobetxatzeko, lagungarria da edukiera handiko altzariak erabiltzea, hala nola etxetresna elektrikoak eta biltegitratze espazioak ezkututzen dituzten zutabeak. Modu honetan, bisualki txukunagoa eta garbiagoa den espazio bat lortuko da. ■



SEIN

**ZUK ETA ZURE ETXEAK
MEREZI DUZUEN GUZTIA**



**BURDINDEGIA
BRIKOLAJEA
DEKORAZIOA...**

FENG SHUI: GORDE ENERGIA ETXEAN

Praktika honen bidez, energia ingurunearekin harmonizatzea lortuko duzu, osasuna eta ongizatea hobetzeko. Horretarako, zazpi aholku ditugu zuretzat, etxea apaindu eta harmonizatu dezazun.





KALITATEZKO DISEINUAK ETA BEZEROEN BEHARRETARA
EGOKITUTAKO ARRETA PERTSONALIZATUA

Amue kalea, 3 • AZPEITIA
Tel.: 943-81 05 04 • abea@abeaaltzariak.com





Feng Shui-a Txinako antzinako filosofia sistema bat da, espazioaren okupazio kontziente eta harmonikoan oinarritzen da, bertan bizi diren pertsonengan eragin positiboa lortzeko asmoz.

Jardunbide horren arabera, apaintzeko eta energia ingurunearekin harmonizatzeko jarraibide batzuk bildu ditugu, osasuna eta ongizatea hobetzeko. Harmonian eta orekan bizitzeko zutabe nagusiak dira, eraikinaren beraren orientatziotik hasi eta energia sustatzeko espazioen argiteriaren diseinuraino.

Kokapen egokia

Ondo egokitutako Feng Shui bat eraikinaren orientazioan hasten da, ingurunearen konfigurazioa kontuan hartuta, eta horren barruan sartzen dira, beste alderdi askoren artean, luraren azterketa (topografia), eguzkiarekiko orientazioa, eta ondoren, eraikin horien barruko azterketa, non barne diseinuaz arduratzen direnek Feng Shui egokitu dezaten.

Eraikinaren kanpoko diseinuan edo orientazioan eragin ezin den egoeretan, filosofia hori etxeetan aplikatzeko aukerak daude, hala nola altzarien banaketan, koloreen hautaketan, elementu naturalen txertaketan edo argiztapenean, iraunkortasunaren, ongizatearen, harmoniaren eta funtzionaltasunaren ikuspegiaren bidez.

Sen ona

Barnealde guztietan egon beharko luke sen onak, banaketa edo distribuzio on bat egitetik abiatuta. Hori bai, bertan bizi behar dutenen beharrak errespetatu behar dira beti, izan ere, horrela bakarrik ziurtatuko da Feng Shuiaren oinarritzko printzipioa modu naturalean ezarri dela: ongizatea eta harmonia bizi den espazioarekiko.

Fluxu naturala

Etxebizitza barruko esperientzia hobetzeko, espazioen arteko fluxu naturala eta irisgarritasun erraza egon behar dute. Horretarako komeni da altzariak edo elementuak korridoreak edo pasabideak oztopatzen ez dituzten moduan jartzea.

Kolore argiak

Feng Shuiaren helburua espazio bat orekatzea eta leku harmoniko bihurtzea da, eta horretarako, argi naturala aprobetxatzea funtsezkoa da. Hori lortzen laguntzen du kolore



OBRA - ERREFORMAK

Pabiloi industrialen egokitzapenak



Fatxadak



Bulegoak



Aldagelak



Tailerreko gelak



Formazio gelak



Jangelak

www.lankabi.com

Industria arloan espezializatuak



Pabiloi industrialen salmenta,
erosketa eta alokairua Gipuzkoa
guztian zehar

www.inmobiliarialantoki.com



neutro, bero eta argiko paleta batek, kolore horiek harmonia eta lasaitasuna ematen baitute. Energia eta bizitasuna sustatzeko, kontraste handiagoa duten tonalitateekin jolastea gomendatzen da.

Proportzio harmonikoak

Ikusmen oreka proportzioari lotuta dago, eta hori galtzen bada, zaila da espazio baten harmonia lortzea. Koherentea izan behar du eta, horretarako, antzinatek diziplina askok erabili dute Aurea Proportzioa. Barne diseinuan hainbat modutan aplika daiteke espazio bateko ikusmen harmonia hobetzeko, hala nola eremu desberdinen dimentsioak, altzarien kokapena eta horien arteko distantzia zehazteko, eta horiek gida gisa balio dezatela, adibidez, dekorazio objektuak edo lanparak kokatzeko. Begien aurrean atseginak eta harmonia-tsuak izango diren ikusmen oreka eta proportzioak bilatzea da gakoa.

Argiztapena

Espazio baten argi diseinuak estetikari laguntzeaz gain, berebiziko garrantzia du giro harmoniatsu eta orekatuaren sortzeko orduan. Argiztapenak ziklo zirkadianoan eragiten du, eta, ondorioz, loaren eta osasunaren kalitatean. Gure emozioetan eta aldartean ere eragin zuzena du. Argi naturala eta artifiziala orekatuta egon behar dira giro harmonikoa sortzeko.

Feng Shuiaren arabera, eremu ilunak saihestu behar dira, eta argi giro beroak eta, ahal dela, erregulatu daitezkeenak sortu. Zeharkako argiztapen zuzena erabiliz gero, gela lasai eta dotoreak sor ditzakegu.

Domotika

Domotikaren integrazioa eta Feng Shuia zuzenean lotuta daude. Konbinazio ezin hobea da bizi kalitatea hobetzeko alderdi askotan, hala nola argiztapenean, tenperaturan edo aireztapenean. Adibidez, argi eszena desberdinak dituzten espazioek bizitza izatea lortuko dute.

Klimatizazioaren kasuan, tenperatura fluxu konstante egokia izatea errazten du, tenperatura elementuak ez ezik aireztapen elementuak ere etengabe graduatuz, hala nola pertsianen graduazioa, argi naturalaren sarrera eta airearen zirkulazioa. ■



Tien21 ESNAOLA

Zerbitzuak:

- Etxetresna elektrikoak
- Argiteria
- Ingeniaritza proiektuak
- Instalazio elektrikoak
- Telekomunikazioa
- Eguzki-energia sistemen kudeaketa integrala
- Mantentze zerbitzua enpresan eta makineria industrialaren konponketa elektrikoak

Denda

Pablo VI, 3 • Tel. 943-08 03 55
esnaelek@outlook.com

Lantegia

Orendaundi, 6 (Landeta)
Tel. 943-15 09 02 • esnaolatelecom@telefonica.net

2024KO BAINUETAKO AZULEJOEN JOERAK AZTERTZEN

Bainuetarako azulejuak ez dira elementu funtzionalak bakarrik;
espazio baten estiloa eta nortasuna definitzen dute.

Hala, edozein une da ona bainugelaren itxura aldatzeko.
Joerak jarraitzea gustuko baduzu, jakin beharra daukazu 2024. urteak
zer ekarriko duen komunetarako zeramikazko dekorazioan.





Berezi

Reformas - Berrikuntzak

Landeta auzoa
Atxubiaga kalea, 5-behea
AZPEITIA

943-81 37 95

reformas_berezi@outlook.com

Erreforma integrala

- + Teilatuak
- + Fatxadak
- + Estalgarriak
- + Sukaldeak
- + Bainugelak
- + Logelak
- + Egongelak
- + Altzarien diseinua
- +++++



- + Igeltserotza
- + Keramikak
- + Altzariak



2024ko joeren artean, honako hauek nabarmentzen dira:

Minimalismoa

Sinpletasunera eta funtzionaltasunera gero eta gehiago mugatzen den mundu honetan, minimalismoak indarra hartu du bainugelen diseinuan. Kolore neutroek eta akabera mateek giro moderno eta dotoreak sortzen dituzte. Kolore neutro horien artean, grisa da nagusi edozein espaziotara (handia edo txikia) eta edozein estilotara egokitzeko duen gaitasunagatik. Tonu grisetako baldosen abantaila handienetako bat konbinazio gaitasuna da, ezin hobeto baitator beste gris gama batzuekin erabiltzen denean edota beste kolore batzuekin kontrastea sortzeko.

Retro modernoa



Iraganarekiko nostalgia modernitatearekin uztartzen da joera retro modernoan. Aurreko hamarkadetako joeretan inspiratutako azulejuek, hala nola eredu geometrikoek eta forma hexagonalek, ukitu garaikidea dute abangoardiako materialak erabiliz gero. Vintage estiloko bainu baten alde egin behar badugu, hautaketarik onenetako bat hormarako azuleju hidraulikoa da, nortasun handia emango baitio. Beste aukera on bat loreen marrazkiak dituzten azulejuak dira, espazio bereziak sortzen laguntzen baitute.



URBISTONDO MARGOAK

DEKORAZIOA ETA ERREFORMAK

MARGOAK - BERNIZAK - PAPER MARGOTUAK
ALFOMBRAK ETA MOKETAK - PVC - MONTO MIX SYSTEM



SANTOS
MONTEIRO



ÉLITIS
Azulejos & Greses



Kolore eta kontraste zirrargarriak

Kolore ausarten erabilera joera bat da 2024ko bainugeletan. Kontrasteek energiaz eta bizitasunez beteko dute bainua, eta beren nortasunagatik nabarmentzen diren espazioak sortzea lortzen dute. Kolore anitzeko azulejuak aukera ezin hobea dira bainua oharkabean pasatzea nahi ez dutenentzat eta originaltasunaren alde egitea nahiago dutenentzat. Horretarako, graffitiak, motibo geometrikoak, landaredia eta beste motibo natural batzuk dira aukera egokienak.

Egitura naturalak

Zura, bai zoladuran, bai estalduran, azken urteetako joera garrantzitsuenetako bat da. Eskaintzen duen berotasunak ez du aurkaririk. Eskandinaviar estiloak eta inspirazio naturaleko beste dekorazio aukera horiek espazioari ukitu natural eta sofistikatua ematea ahalbidetzen dute. Gainera, bainuetarako zurezko azulejuak guneezko hezeetarako egokiak dira. ■



ANDU

proiektuak



Eusko Gudari 10, Orio
andualtzariak@euskalnet.net
Tel.: 943-13 09 99 / 695 78 30 43



ARGI NATURALA IRABAZTEKO

**Argitasuna da etxebizitza batean gehien balioesten den ezaugarrietako bat.
Zorionez, oso trikimailu eraginkorrak daude argi hori indartzeko.
Honako hauek dira etxean argi naturala maximizatzeko sekretuak.**




REFORMAS EUGENIO



ERREFORMA OROKORRAK

Pintura
Aroztegia
Sukaldeak
Iturgin lanak
Bainugelak



A bright window with patterned curtains, a window seat with cushions and books, and a potted plant on the sill.

Etxebizitza bat aukeratzeko, duen argi naturala da balantzan jartzen den ezaugarrietako bat. Hala ere, batzuetan, beste premia batzuk lehenesten dira, eta kasu horietan, imajinazioa areagotu eta baliabide batzuk praktikan jarri behar dira argi natural apurra biderkatzeko. Kolore zuria, ispiluak, espazio irekiak eta itxitura gardenak dira horietako batzuk.

Argi naturala irabazteko modurik azkarrena eta eraginkorrena hura pasatzen uztea da. Ateak, askotan, oztopoak besterik ez dira, batez ere eguneko gelak diren egongelan, jangelan edota estudioan. Horrela, ateak kenduz, eguzki izpiak leihoetatik urrun dauden gunetara iristen dira.

Gauza bera gertatzen da hormekin eta paretekin. Hormak izan behar dira etxean, baina kopuru justuan. Beirazko paretez ordezkaturik gero, argi naturala biderkatzea lortuko da leku zailetan eta ilunetan, eta aldi berean, modernitatean irabaziko da. Oso zatikatuta dagoen etxebizitza batek argi naturalaren banaketa homogenea eragozten du, eta beraz, gune irekien alde egitea da irtenbiderik onena. Sukaldea, egongela eta jangela espazio berean kokatzea da gaur egungo joera

MIMA

ETXEKO OSAGARRIAK



Denda espezializatua da Mima. Mota guz-tietako gortinak, kuxinak, oherako oihalak eta altzarien tapizeria egiten ditugu neurrira. Gainera, oihalei zein behar teknikoei buruz behar duten aholkularitza osoa eskaintzen diegu bezeroei.

📍 Lololako Inazio Hiribidea 21, behea
20730, Azpeitia (Gipuzkoa)

☎ 943-81 69 76 📞 645 00 50 65

✉ mima.denda@gmail.com 🌐 www.mima.eus 📱 @mimodenda



Oztopo bisualak kamuflatzea ere ondo etortzen da. Adibidez, sukalde ireki bateko kanpaia gunearen erdian gelditzen bada, zuriz margotu daiteke, beti ere, paretak eta altzariak kolore horretakoak badira.

Kolore zuria edozein elementutara egokitzen da, hala nola hormetara, sabaietara eta eskaileretara. Sarrera bateko protagonista izateko hura aukeratzea beti da aukera bikaina, argitasun handia ematen baitu atea irekitzen den unetik.

Koloreekin jarraituz, etxeko gainerako geletan argi naturala aprobeztatzeari dagokionez, hormetan eta zoruan kolore argiak sartzeak du arrakasta, eta tonu ilunagoko pintzelkadak dekorazio elementuetan sartzeak. Hormak, zenbat eta garbiago, elementurik gabe egon, orduan eta hobeto.


Zenbat eta leiho handiagoak izan, hobe. Eta leiho horiek marko zuriak badituzte, are hobeto. Izan ere, ilunek argi fluxua eteten duten bitartean, kolore zurikoek sakonago islatzen dute, harmonia handiagoa emanez gelari.

Saihestu altzari handiak

Altzariei dagokienez, pieza handiek argi naturala sartzea oztopatzen dute. Hobe altzari baxu, estu, hanka altu edo esekiak erabiltzea. Kristalezko mahaiek ere argia islatzen dute eta espazioa bisualki zabaltzen dute.

Etxebizitzaren edozein lekutan argia harrapatzeko baliabide izarra da ispilua. Gakoa estrategikoki kokatzea da, hau da, argi naturala berez ugaria den tokian. Tamaina handiko bat bezain baliozkoak dira txiki asko, argiak bertan errebotatuko baitu.

Azkenik, eta agerikoa bada ere, ezinbestekoa da gogoratzeari pertsianak igotzea eta gortinak irekitzea izan beharko litzatekeela eguna hasteko modua. ■



LEIHOAK.com
eta toldoak



www.leihoak.com

943 002 275 - 619 432 079

leihoak@leihoak.com

Leihoen eta toldoen erakusketa Zelai Ondo, 23 | ZARAUTZ



GUKA ate joka dator



HIGIEZINEN SALMENTA / ALOKAIRUA

- Etxebizitzak
- Merkataritzako lokalak
- Pabiloiak
- Eraikuntza berriak...
- Etxebizitzen eraberritze integralak egiten dira
- Baserriak
- Garajeak
- Lursailak



Erdi kalea, 21 • AZPEITIA • 943-82 90 74
www.egurtza.com • www.inmoegurtza.com
info@egurtza.com • info@inmoegurtza.com

SARRERATIK

KENDU BEHARREKO ZAZPI GAUZA

Etxeko sarrera gelarik zailenetako bat da.
Merezi duen arreta eskaini eta garbiketa serio bat egiteko garaia da,
kontrola eta ordena mantentzeko.

Neguan ere, balkoi, terraza eta
lorategi **koloretsuak**



 **KIMUBAT**
— GARDEN

Urrestilla bidea 1/g - Aspetio
943 15 00 85
kimubat@kimubat.eus
www.kimubat.eus



Sarrera ordenatu batek edozein etxetako bizi arteria izan beharko luke, baina, maizegi, etxera iritsi eta eskuan ditugun gauzen gordelekua bihurtzen da. Zer gauza ez lirateke inoiz egon behar harrera batean? Bihurtu ezazu gainkargatutako harrera hori etxera sartzeko ate perfektuan, honako aholku hauekin:

1. Ezertarako balio ez duten altzariak

Zoritxarrez, sarrera guztiek ez dute leku asko izaten. Beraz, zure sarrerak tamaina xumea badu, nahaspila saihestuko duzu bertan altzaririk jarri gabe. Beste erremediorik ez bada —eta badakigu, kasu askotan, hala dela—, onena altzari funtzionalak erabiltzea da espazioa eta biltegitratzea ahalik eta gehien aprobetxatzeko.

2. Giltzak

Denok egin dugu: etxera iritsi eta kotxeko eta etxeko giltzak bota sarrerako lekuren batean. Hala ere, ez dira inoiz giltzak sarreran utzi behar. Lapurreta kasuren baten aurrean, lapurrak bilatuko duen lehen gauza baita. Aurkitu ezazu, sarreratik gertu, leku on bat giltzak gordetzeko.

3. Beroki gehiegi

Bakarrik bizi bazara edota familia ugaria baduzu, erraza da berokiak sarreran uztea, armairuan gorde beharrean. Hoberena, beroki gutxi batzuk eskura uztea da, eta gainerakoak, berriz, logelan, armairuan edo jantzigelan. Sarreran armairu on bat ez baduzu, beroki bat edo bi bakarrik izan sarreran, horrela bakarrik saihestuko duzu sor daitekeen nahasmena.



AGINAGA

— ALTZARIAK —

Estrata 3. Pab. Errasti (Aginaga Auzoa) 20170 USURBIL
Tel./Faxa: 943-36 93 59 Mugikorra: 676 35 56 35
aguinaga@mueblesaguinaga.com

Erakusleihu aldaketagatik
eskaintza bereziak
sofa eta kanapeetan
%20 eta %70 arteko deskontuak


Bisita gaitzazu eta ez galdu aukera hau!



1.099€



650€
kanape+colchon



1.499€

Lantegitik zuzenean zeure etxera, bitartekarik gabe. Bisita ezazu gure erakusketa:
estilo klasiko nahiz modernoko altzariak ditugu, dekorazio produktu eskusiboekin.
Promozioan, doako bidalketa eta muntaketa
Aurkeztu argazki hau promozioaz gozatu ahal izateko



GARRAIO
PROPIA

MUDANTZAK
EGITEN DITUGU

4. Haur kotxeak, patineteak eta bizikletak

Haur kotxeek, patineteek eta bizikletek espazio garbi bat izan beharko lukeena desordenatzeaz gain, arriskua ere ekar dezakete. Ahal bada, etxeke beste gela batean jartzea da egokiena, sarreran traba edo estropezu egiteko arrisku bat izan baitaitezke. Gurpildun tamaina handiko objektuentzat bizilagunen komunitatean espazio komun bat sortzen saia zaitezke, edo kanpoko estalpe edo trasteleku seguru, iragazgaitz eta sarrailladun batean inbertitu dezakezu.

5. Gauzak lurrean

Zoru desordenatu batek inguruko espazio guztia kaos bihurtzen du. Kasu horietan ez dago trikimailurik: jaso dena. Erabili saskiak edo armairuak berokiak, kapelak, zapatak, oheko arropa, poltsak, jostailuak... gordetzeko. Aukeratu biltegitratze sistema praktikoa, kalitateari eta diseinuari uko egin gabe. Gogoratu eskolako motxilak sarrerako lurrean gehien uzten diren elementuetako bat direla, beraz, gorde haurren geletan, eta haien garaierara jarri kakoak.

6. "Dena gordetzeko" ontziak

Katilu handi bat izaten da gehienetan, diseinu edo kolore interesgarriak dituelako aukeratzen da, baina denbora pixka bat igarotzean ez da ikusten, barruan gauza gehiegi dituelako. Beraz, horrelako ontziak saihestea da onena. Horren ordez, hobe da pieza txikiagoak bilatzea sarreran egon behar duten objektu garrantzitsuentzat. Gauza horietarako berriazko biltegitratze kaxak edukitzeak askoz errazagoa egiten du behar duguna bakarrik hartzea.

7. Koadroei so

Etxera presaka sartzten eta etxetik presaka irteten garenean, erraza da sarrerako hormetatik zintzilik dagoena alde batera uztea, eta ez ikustea. Litekeena da aspalditik izatea horman gustatzen ez zaizkizun koadro, xafla edota argazkiak. Gorde edo eman gustuko ez dituzunak, eta ziurtatu etxeke sarreran erakusten dituzun pieza guztiak gustatzen zaizkizula eta zure estiloarekin bat doazela. ■





landeta

brikodenda

Pinturak 

Giltzen kopiak, zerrailak 

Garbiketarako gauzak 

Baserriko tresneria 

Kolak, silikonak 

Industria homidurak eta laneko arropak 

Margotutako papera 

Parketak 

Burdindegia 

Segurtasunerako laneko arropak 



Landeta hiribidea, 8 • AZPEITIA • 943-81 25 66 • 607 58 89 13
landetabrikodenda@hotmail.com • www.landetabrikodenda.com

GARAITZEN ARI DEN DEKORAZIOKO JOERA

Zura barnealdeez jabetzen hasi da, horiek berotasunez,
erlaxazioz eta sofistikazio handiz betetzeko.
Hormak zurez estaltzea joera da, eta gainera, ona zure osasunerako.




Lastaola
leihoak

- Isolamendu termikoa
- Isolamendu akustikoa
- Lapurreten aurkakoak
- Kanpo arrotzeria eraikitzea eta jartzea
- PVC
- Aluminioa
- Mixtak
- ...





www.decoramik.com

 [@decoramik_](https://www.instagram.com/decoramik_)

Loiolako Inazio Hiribidea 2, Azpeitia

943814822

decoramik@decoramik.com





Jasangarritasuna, bakean sentitzera gonbidatzen duten espazioak, etxea babesleku egiten dutenak... Kontzeptu horiek guztiak gaur egun premiaztat hartuak daude barne diseinuan. Baina nola eraman etxeetara? Modurik eraginkorrena material naturalak erabiltzea da; batik bat, zura.

Zurak altzarien eta zoruen hesia gainditu du, eta paretetan, sabaietan, korridoreetan eta eskaileretan erabiltzen hasi dira, modu integralagoan, naturako espazio inguratzaileak sortuz. 1970ko urteak gogora ekartzen dituen joera da, baina beste estetika batekin: finagoa eta minimalistagoa, akabera ez hain distiratsuekin.

Orain, gainera, egiaztatu da naturara edo baso batera ir-teteak osasunarentzat izan ditzakeen onura berberak ekar ditzakeela etxe barruan zura sartzeak. Izan ere, zurak tentsioa eta bihotz erritmoa erregulatzen laguntzen du, eta pertsonen ongizatean eragin zuzena du.

Benetako zura aukeratzea garrantzitsua da, egur naturala erabiltzea alegia, eta plastikozko imitazioetatik aldentzea, nahiz eta imitazio onak izan. Saiatu haritzaren antzerakoak diren kotonuak hautatzen, oso ondo konbinatzen baitute buztin eta gris tonuekin.

Egur naturalek eskaintzen duten aukera zabalaren barruan, aukeratutako egurrak zenbat eta beta gehiago izan, orduan eta rustikoagoa izango da gure giroa. Etxeetako dekoraziora eramatean, egur nobleak aukeratu behar dira, beraz. Akabera sofistikuak hautatu behar dira: asko leundutako zura, ertz biribilduak dituenak, pieza meheak...

Eta igeltsuzko horma batekin alderatuz gero, lan gehiago emango al du zurezko horma batekin? Ez. Etxeko edozein mahai bezala garbitzen da, material berarekin eginda baitaude. Gainera, zokalorik ez duzunez izango, bertan pilatzen den ohiko zikinkeriarik ere ez duzu izango. ■

MILAR
LARRAMENDI
AZKOITIA


**Cooking
& Chef**



Zuretzat pentsatutako eta egindako sukaldeak

Häcker
kitchen.germanMade.

88 bastidasukaldeak

